

Kazetari agurgarria / Lurraren zientzietako kide agurgarria:

Ondare geologikoko nazioarteko lehen 100 lekuak (**The First 100 IUGS Geological Heritage Sites**) iragartzeko antolatuko den ekitaldiaren prentsa-bulegotik idazten dizugu. Geologia Zientzien Nazioarteko Elkarteak (IUGS, *International Union of Geological Sciences*) antolatutako ekitaldia mugarri bat izango da mundu osoko leku geologikoak izendatzeko; izan ere, leku horiek ikonikoak dira, eta komunitate geozientifikoarentzat ingurune bereziak dira, erreferentziatzeko baitira Lurra eta haren historia ulertzeko. Halaber, ekitaldian, Geologia Zientzien Nazioarteko Elkartearen 60. urteurrena ospatuko da.

Ia 40 herrialdetako 200 adituk baino gehiagok eta nazioarteko hamar erakundek parte hartu dute hautaketa-prozesu horretan. Zerrenda Zumaian (Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkean) aurkeztuko da urriaren 25etik 28ra. Izan ere, Zumaian dago Lurreko azalera-estratigrafiko ikusgarrienetako bat.

Deialdi orokor eta bakar honen bidez, IUGSk oihartzun eta ikusgarritasun zabala lortu nahi du nazioartean. Erronka handia da, eta horretarako ezinbestekoa izango da munduko komunikabideen parte-hartzea. Zuk zeuk ere ekimen honetan parte har dezakezu, zure herrialdean izendatutako tokiei ahalik eta ikusgarritasun eta oihartzun handiena emanez.

Hori dela eta, Zumaiara hurbiltzeko eta ekitaldiaren eta jardunaldien berri emateko gonbita luzatu nahi dizugu. Egun horietan ezin bazaitzke hurbildu, eskertuko genizuke lehenengo 100 lekuen (First 100) berezitasunaren berri ematea zure komunikazio-kanaletan (egunkariak, webguneak, aldizkariak, buletinak...). Gure aldetik behar dituzuen elkarrizketak, erreportajeak eta abar lotzeko eta kudeatzeko prest gaude. Laguntzeko prest gaude.

Ekitaldia baino egun batzuk lehenago, prentsa-ohar berri bat zabalduko dugu informazio zehatzagoarekin. Prentsa-ohar horretan lehenengo 100 leku horien zerrenda eta herrialde bakoitzean hautatuak izan diren tokiak ageriko dira.

Zure berrien zain gelditzen gara. Galderaren bat baduzu, jarri gurekin harremanetan.

Mila esker, alde zurea.

Irati Kortabitarte  
Prentsa-arduraduna

---

Kontaktua: Irati Kortabitarte  
Telefonoa: +34 688 860 706  
[i.kortabitarte@elhuyar.eus](mailto:i.kortabitarte@elhuyar.eus)

PRENTSA-OHARRA

## IUGSren ondare geologikoko lehen 100 lekuak urrian jakinaraziko dira

IUGSren ondare geologikoko lehen 100 lekuak (The First 100 IUGS Geological Heritage Sites) Zumaian aurkeztuko dituzte urrian, Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkean baitago Lurreko azaleratze estratigrafiko ikusgarrietako bat.

Zumaia /2022.09.29. Geologia Zientzien Nazioarteko Elkarte (IUGS) munduko zientzia-erakunde handienetako bat da; 121 herrialdetako kideak ditu, milioi bat geozientzialari baino gehiago. IUGS 60. urteurrena ospatzen ari da, eta urteurreneko ekitaldi nagusia Zumaian, Euskal Kostaldeko UNESCOren Geoparke Globalean, izango da: IUGSren ondare geologikoko lehen 100 lekuak aurkeztuko dira (*The First 100 IUGS Geological Heritage Sites*). Iragarpen hori izango da mundu osoko leku geologikoak izendatzeko ahaleginaren abiapuntua. Leku horiek ikonikoak dira, eta komunitate geozientifiko guztiak aintzat hartuko ditu, Lurra eta haren historia ulertzeko duten eraginagatik.

Zientzialariak aspalditik ari dira eskatzen arau orokorretan oinarritutako mundu mailako programa bat ezar dadin nazioartean garrantzi handia duten lekuak aitortzeko. *IGCP - 731 IUGS Geological Heritage Sites* (IUGS - UNESCO) proiektuak lankidetzarako baldintza egokiak sortu ditu mugarri handi hori lortzeko, eta aurrerantzean anbizio handiko programa honen lanaren oinarria izango da.

IUGSren Ondare Geologikoko Leku bat nazioartean garrantzi zientifikoa duten elementu edota prozesu geologikoak dituen ingurunea da, erreferentziazkoa dena eta historian zehar geologia-zientzien garapenari ekarpen nabarmena egiten diona. Hona hemen zerrenda ikusgarri hori osatzen duten adibide gutxi batzuk: Hego Afrikan dauden Lurreko arroka zaharrenetako batzuk, Australiako eta Txinako bizitza primitiboko arrastoak, Kanadako dinosauroen fosil-hondar onenetako batzuk, Tanzaniako lehen hominidoen garapenaren lehen aztarnak, Everest mendiaren gailurreko itsas arrokkak, bai eta zenbait leku enblematiko ere,

---

Kontaktua: Irati Kortabitarte  
Telefona: +34 688 860 706  
[i.kortabitarte@elhuyar.eus](mailto:i.kortabitarte@elhuyar.eus)

hala nola Arroila Handia (AEB), Perito Moreno glaziarra (Argentina), Santoriniko galdara (Grezia) eta Uluru (Australia).

Ia 40 herrialdetako 200 adituk baino gehiagok eta nazioarteko hamar erakundek, Lurraren Zientzietako hainbat diziplinatakoak, parte hartu dute kokaleku horien guztien hautaketan. 56 herrialdetako 181 leku hautagai proposatu ziren, eta nazioarteko 33 adituk ebaluatu zituzten. Lankidetzeta-prozesu konplexu horren emaitza IUGSko ondare geologikoko lehen 100 lekuen zerrenda da, zeina Zumaian aurkeztuko baitute lan honetan jardun diren profesional gehienek. Ekitaldiaren eta jardunaldien behin betiko programa hemen dago eskuragarri: <https://geoparkea.eus/iugs-globalgeosites>

IUGSren aitortza honek ikusgarritasuna ematen die leku horiei. Balio zientifiko handieneko leku gisa identifikatzen ditu. Geologiaren zientzia garatzeko balio izan duten lekuak dira, bereziki haren hasierako historia. Ezaugarri eta prozesu geologikoen munduko erakusleihorik onenak dira. Lurraren eta haren historiaren aurkikuntza harrigarrien inguruneak dira.


Ekitaldia baino egun batzuk lehenago, zerrendari eta lekuei buruzko informazio zehatzagoa emango da prentsa-ohar zabalago batean. Informazio gehiago nahi baduzu, jarri harremanetan gure prentsa-arduradunarekin.

“First 100” horietako asko ongi babestuta daude parke nazionaletan, geoparkeetan eta erreserba naturaletan; beste asko, berriz, ez. IUGSren aitortza honi esker, ondare geologikoko “lehen 100” kokaleku horiek ezagunagoak egingo dira, litekeena da hezkuntza-baliabide gisa erabiltzea eta, are garrantzitsuagoa dena, babestea.

“First 100” ekitaldiak gogoangarria izan nahi du, eta urriaren 25etik 28ra Zumaian, Euskal Kostaldeko UNESCOren Geoparkean, egingo den ospakizuna ikusgarria izango da. Helbide honetan eman daiteke izena: [www.geoparkea.eus/iugs-globalgeosites](http://www.geoparkea.eus/iugs-globalgeosites). Laster ikusiko zaituztegunulakoan gaude. Gorde datak!

<https://iugs60.org/100-geosites/>

THE FIRST  
**100** IUGS  
GEOLOGICAL  
HERITAGE SITES



**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY

SPONSORING



*Euskadi, auzolana, bien común*



Kontaktua: Irati Kortabitarte  
Telefona: +34 688 860 706  
[i.kortabitarte@elhuyar.eus](mailto:i.kortabitarte@elhuyar.eus)